eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

**ERABAKIA, 2020ko OTSAILAREN 25koa, BIZKAIKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDEARENA, UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN BIZKAIKO CAMPUSEKO ZITEK PROGRAMAREN BARRUAN KULTURA EKINTZAILEA SUSTATZEKO EKINDUZ 2020 LEHIAKETAREN OINARRIAK ONARTZEKO ETA LEHIAKETARAKO DEIA EGITEKO DENA.**

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (aurrerantzean UPV/EHU), Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailak eta BEAZ Bizkaiak ahaleginak batu dituzte, ekimenerako kultura bultzatu eta enpresa berritzaile eta oinarri teknologikodunak sortze aldera, eta, horretarako, abian jarri dute Enpresen Sorreran Laguntzeko ZITEK Programa, unibertsitateko kideei zuzendutakoa (ikertzaileak, irakasleak, graduko eta graduondoko ikasleak).

Zitek Programak sustatutako ekintzen barruan, Ekinduz 2020 lehiaketaren bidez kultura ekintzailea bultzatu nahi da UPV/EHUko Bizkaiko Campusean. Horretarako, ikasleei aukera emango zaie enpresen sorrerarekin lotutako gaietan modu ludiko eta entretenigarrian prestatzeko bidea emango dien joko batean parte hartzeko.

Adierazitakoagatik, eta UPV/EHUko errektorearen 2017ko urtarrilaren 25eko Erabakiak emandako eskumenen babesean (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko erabakia), errektoreak eskuordetuta, honako hau

**RESOLUCIÓN DE 25 DE FEBRERO DE 2020, DEL VICERRECTOR DE CAMPUS DE BIZKAIA POR LA QUE SE APRUEBAN LAS BASES Y SE CONVOCA EL CONCURSO EKINDUZ 2020 DE IMPULSO DE LA CULTURA EMPRENDEDORA DENTRO DEL PROGRAMA ZITEK DEL CAMPUS DE BIZKAIA DE LA UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA.**

La Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (en adelante UPV/EHU), el Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia y BEAZ Bizkaia, han unido sus esfuerzos de cara a fomentar la cultura emprendedora y la creación de empresas innovadoras y de base tecnológica, mediante la puesta en marcha de un Programa de Apoyo a la Creación de Empresas, ZITEK, dirigido a la comunidad universitaria (comunidad investigadora, profesorado, alumnado de grado y postrado).

Dentro de las actuaciones impulsadas por el Programa Zitek, a través del concurso Ekinduz 2020 se pretende impulsar la cultura emprendedora dentro del Campus de Bizkaia de la UPV/EHU, ofreciendo al alumnado la posibilidad de participar en un juego que les forme sobre temas relacionados con la creación de empresas de una forma lúdica y entretenida.

Por lo expuesto y, en virtud de lo dispuesto en la Resolución de 25 de enero de 2017, de la Rectora de la UPV/EHU, sobre estructura y determinación de las áreas de funcionamiento de su equipo de gobierno y de delegación de competencias, por delegación de la Rectora,

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKI DUT

*Lehenengoa.*- Onarpena.

Onartu egiten dira Ekinduz 2020 lehiaketaren deialdia eta deialdiaren eranskineko oinarriak, lehiaketa arautzekoak.

*Bigarrena.*-Argitalpena.

Deialdi hau Bizkaiko Campusaren iragarki taulan eta http://www.emprendedoreszitek.com/ webgunean argitaratuko da.

Deialdi honetako gainerako egintzak eta komunikazioak http://www.emprendedoreszitek.com/ webgunean argitaratuko dira.

*Hirugarrena.*- Errekurtsoak eta administrazio isiltasuna

Erabaki honek eta bere oinarriek administrazio bidea agortzen dute eta beren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke hilabeteko epean, argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita, urriaren 1eko 39/2015 1 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezarritakoaren arabera.

Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke, bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratzen denetik kontatzen hasita. Berraztertze errekurtsoa jarriz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri berraztertze errekurtsoaren ebazpen espresua eman edo

RESUELVO:

*Primero.*- Aprobación.

Se aprueban la convocatoria del concurso Ekinduz 2020 y las Bases anexas que deberán regir el mismo.

*Segundo.* -Publicación.

La presente convocatoria será publicada en el Tablón de Anuncios del Campus de Bizkaia y estará disponible en la página web http://www.emprendedoreszitek.com/

El resto de actos de esta convocatoria y comunicaciones que se realicen se publicarán en la web http://www.emprendedoreszitek.com/

*Tercero.*- Recurso y Silencio.

Contra la presente Resolución y sus Bases, que pone fin a la vía administrativa, cabe interponer potestativamente recurso de reposición en el plazo de un mes desde su publicación, de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las AAPP.

No obstante, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses desde la publicación de la presente Resolución. En el caso de haber interpuesto recurso de reposición, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta la resolución expresa o

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

presuntziozko ezespena gertatu arte.

Erabaki hau argitaratu eta sei hilabeteren buruan webgunean ezelako esleipen erabakirik argitaratzen ez bada, interesdunek ezetsitat jo dezakete beren eskaera, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, ezarritakoarekin bat.

Leioa, 2020ko otsailaren 25a.

presunta del primero.

Si transcurridos seis meses desde la publicación de esta Resolución no se hubiera publicado en la web resolución alguna de adjudicación, las personas interesadas podrán entender desestimada su solicitud de conformidad con lo establecido en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las AAPP.

En Leioa, a 25 de febrero de 2020.

**Francisco Juaristi Larrinaga**
**UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko errektoreordea**
**Vicerrector de Campus de Bizkaia de la UPV/EHU**

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

# BASES CONCURSO EKINDUZ 2020

## OBJETIVO

Impulsar la cultura emprendedora dentro del Campus de Bizkaia de la UPV/EHU, ofreciendo al alumnado la posibilidad de participar en un juego que les forme sobre temas relacionados con la creación de empresas de una forma lúdica y entretenida.

## PLAZOS

La ronda clasificatoria de EKINDUZ dará comienzo el día 12 de marzo de 2020 y se cerrará a las 23:59 horas del día 27 del mismo mes. En cualquier momento de ese plazo, cualquier participante podrá incorporarse al juego.

La final se jugará el 2 de abril de 2020 en la Facultad de Economía y Empresa (Sarriko) de la UPV/EHU.

La inscripción es gratuita.

## PARTICIPANTES

Podrá tomar parte en Ekinduz el alumnado del Campus de Bizkaia de la UPV/EHU (incluido alumnado de máster y doctorado).

La organización podrá abrir el juego a la participación de alumnado de los Centros de Formación Profesional colaboradores. Sin embargo, este alumnado no podrá acceder a la final presencial ni a sus premios, aunque sí entrará en el sorteo de los dos premios adicionales.

En este caso, las inscripciones de los grupos que quieran participar en el juego deberán ser solicitadas por el profesorado de los Centros de Formación Profesional, escribiendo al email de zitek@ehu.eus.

## DESARROLLO DEL JUEGO

### RONDA CLASIFICATORIA (FASE ONLINE)

### PRIMERA FASE

El tablero se encuentra formado por 46 casillas: 42 que representarán cada una de ellas a una empresa del programa Zitek, 3 especiales (categoría "Suerte") que representan a los socios del Programa Zitek (UPV/EHU, DFB/BFA y Beaz) y la casilla de salida ZITEK.

Las 42 casillas se subdividen por colores en 5 grandes grupos (Infraestructuras, Personal, Financiación, Factores Externos e Intangibles) cada uno de los cuales engloba 3 categorías, excepto Intangibles, que solamente engloba dos (ya que la tercera sería "Suerte", que tiene sus propias 3 casillas).

En esta primera fase las personas participantes deberán elegir una de las 4 opciones empresariales que se ofrecen (autónomo, microPYME, PYME o multinacional) siendo libre la elección.

Después de la elección los/as participantes deberán contestar acertadamente 1 pregunta de cada una de las 14 categorías para poder pasar a la segunda fase. Para ello lanzarán los dados e irán avanzando por el tablero contestando a la categoría que elijan de las que aún les queden por responder acertadamente en función del grupo del que forme parte la casilla en la que caigan. En el momento en que las 3 categorías de cada grupo se hayan respondido satisfactoriamente, todas las casillas de ese grupo quedarán excluidas del juego y no se podrá caer otra vez en ninguna de ellas.

Para empezar la partida se dispone de 4 vidas y un comodín; cada respuesta equivocada eliminará una vida y la utilización del comodín (comodín del 50%), supondrá la desaparición de dos de las respuestas incorrectas. No se podrá acumular más de 5 comodines ni más de 5 vidas. Quedarse sin vidas supondrá que hay que iniciar el juego desde cero.

Caer en una de las 3 casillas especiales hará entrar en juego la "suerte", por lo que el/la participante podrá obtener o un comodín o una vida aleatoriamente.

Caer en la casilla Zitek, hará que el/la concursante consiga un comodín y una vida.

En caso de que la respuesta elegida sea errónea (cada pregunta lleva 4 opciones a elegir, siendo solamente una de ellas la correcta) el/la jugador/a seguirá tirando los dados, pudiendo dejar interrumpida la partida y retomada las veces que desee, durante el plazo de vigencia del juego.

## SEGUNDA FASE

Una vez contestadas acertadamente 1 pregunta de las 14 categorías de las de la primera fase (en suerte no es necesario caer), se accederá automáticamente a la segunda fase.

En esta segunda fase, nos encontraremos con una lista de 50 acciones que habremos de encuadrar en 4 apartados diferentes (cada apartado supone un grado diferente de desarrollo de mi empresa). Cada acción incorporada correctamente a una fase supondrá 2 puntos (puede haber acciones que sean válidas en más de un apartado)

De la suma de los puntos de esa segunda fase, saldrán los/as 5 participantes en la final, que serán aquellos/as que mayor puntuación hayan obtenido.

En caso de empate entre varios/as concursantes, el pase a la final se dilucidará mediante sorteo entre todos/as los que hayan empatado, hasta que queden 5 finalistas.

La clasificación final se hará pública el día 31 de marzo en la web de www.emprendedoreszitek.com, a las personas finalistas, además, se les notificará vía mail su presencia en la final (si hubieran indicado su teléfono también se les notificará por esta vía). Si alguna de ellas no pudiera asistir, su puesto lo ocuparía el o la siguiente en la clasificación.

## RONDA FINAL (FASE PRESENCIAL)

La final se jugará de forma presencial.

En ella, solamente se jugará la primera fase, resultando ganadora aquella persona que antes consiga contestar acertadamente a todas las categorías del juego. El juego continuará hasta que otras dos personas contesten también acertadamente todas las categorías, finalizando en ese momento el juego.

A diferencia de la fase virtual, si se produce una respuesta errónea, se perderá el turno, pasando éste al/ a la siguiente, por lo que se eliminarán las vidas y las casillas de "Suerte" y Zitek pasarán a ser comodines

El orden de participación se establecerá lanzando los dados de forma que quien saque el número más alto, empezará el juego y lo seguirá la persona situada a su derecha.

Cada jugador/a dispondrá de un máximo de 3 turnos, pasando éste al siguiente aún en el caso de haber acertado.

## DIPLOMA ACREDITATIVO Y CRÉDITOS DE LIBRE ELÉCCIÓN

Obtendrán diploma acreditativo de participación en el concurso (previa solicitud) todas aquellas personas que hayan superado la segunda fase.

El concurso se estipula en una duración de 25 horas, por lo que el alumnado tendrá derecho a 1 crédito optativo.

Todos los certificados se enviarán vía correo postal.

## PREMIOS

Los/as 5 participantes de la final obtendrán los siguientes premios:

Primer/a Clasificado/a: 1.000 euros

Segundo/a Clasificado/a: 500 euros

Tercer/a clasificado: 300 euros

Cuarto/a y Quinto/a Clasificado/a: 150 euros

Todos aquellos/as participantes que hayan concluido la segunda fase del concurso (excepto los/as finalistas) entrarán a formar parte de un sorteo en el que se entregarán 2 premios de 150 euros.

Ningún participante podrá recibir 2 premios.

## DIFUSIÓN

La presente convocatoria será publicada en el Tablón de Anuncios del Campus de Bizkaia y estará disponible en la página web http://www.emprendedoreszitek.com/

El resto de actos de esta convocatoria y comunicaciones que se realicen se publicarán en la web http://www.emprendedoreszitek.com/

## JURADO Y RESOLUCIÓN FINAL

El Jurado del Concurso, que dará respuesta a cualquier reclamación o duda que surja durante el mismo tanto en su fase online como en la final, estará formado por un representante de cada uno de los tres socios de Zitek.

La resolución final con los/las ganadores/as se publicará en la web www.emprendedoreszitek.com, una vez emitida por el Vicerrectorado de Campus de Bizkaia.

## ACEPTACIÓN DE LAS BASES Y PROTECCIÓN DE DATOS

Las respuestas del concurso no serán cuestión de debate por parte de los/as concursantes, quedando ya establecidas las respuestas correctas antes del comienzo del juego y admitiendo todas las personas participantes su veracidad, desde el momento en que se inscriban en el concurso, ya que el simple hecho de participar en él, implica la aceptación de todas las normas detalladas en este documento.

El Comité organizador del concurso (Zitek) se reserva el derecho a rechazar la participación de algún/a participante si así lo estima necesario. Este comité se reserva el derecho a tomar las medidas oportunas ante cualquier irregularidad que pudiera darse durante el desarrollo del concurso, tanto en la fase on line como en la final.

En cumplimiento con la Ley Orgánica de Protección de Datos, le comunicamos que sus datos van a formar parte de un fichero automatizado, titularidad de Zitek, y que será utilizado únicamente para la correcta gestión del concurso. Podrá ejercitar gratuitamente los derechos de acceso, rectificación y cancelación, contactando con Zitek UPV/EHU, barrio Sarriena s/n 48930 Leioa, email: zitek@ehu.eus

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

# EKINDUZ 2020 LEHIAKETAREN OINARRIAK

## HELBURUA

Kultura ekintzailea bultzatzea UPV/EHUko Bizkaiko Campusean, eta, horretarako, ikasleei aukera ematea enpresen sorrerarekin lotutako gaietan modu ludiko eta entretenigarrian prestatzeko bidea emango dien joko batean parte hartzeko.

## EPEAK

EKINDUZ lehiaketako sailkapen txanda 2020ko martxoaren 12an hasi eta martxoaren 25eko 23:59an amaituko da. Parte hartzaileek jokoan sartu ahal izango dute epe horren barruko edozein unetan.

Finala 2020ko apirilaren 2an, UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Sarriko) izango da.

Izen ematea doan izango da.

## PARTE HARTZAILEAK

EKINDUZ lehiaketan parte hartu ahalko dute UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko ikasleek (master eta doktoregokoak barne).

Antolakuntzak jokua zabal dezake Lanbide Heziketako Eskola kolaboratzaileek parte har dezaten. Hala ere, ikasle hauek ezin izango dute final presentzialean parte hartu, ezta final horretako sariak lortu, baina beste bi sari berezien zozketan parte hartuko dute. Kasu horretan, parte hartu nahi duten taldeen izen-emateak Lanbide Heziketako ikastetxeetako irakasleek eskatu beharko dituzte, zitek@ehu.eus helbide elektronikora idatziz.

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea

## JOKOAREN NONDIK NORAKOAK

### SAILKAPEN TXANDA (ONLINE FASEA)

### LEHENENGO FASEA

Taulak 46 lauki ditu, era honetara banatuta: 42 lauki, Zitek Programako enpresak ordezkatzen dituztenak (lauki bakoitzeko enpresa bat); hiru lauki berezi ("Zortea" kategoriakoak), Zitek Programako bazkideak (UPV/EHU, BFA eta Beaz) ordezkatzen dituztenak; eta, "Zitek" irteera laukia.

Berrogeita bi laukiak koloreka daude banatuta bost talde handitan (Azpiegiturak, Langileak, Finantziazioa, Kanpoko Faktoreak eta Ukiezinak). Horietako bakoitzak hiru kategoria biltzen ditu, Ukiezinak izenekoak izan ezik, azken talde horrek bi kategoria biltzen baititu (hirugarrena "Zortea" litzateke, bere hiru laukiak dituena).

Lehenengo fase honetan, eskaintzen diren lau enpresa aukeren artetik (autonomoa, enpresa txiki eta ertainak –ETE–, mikroETE edo multinazionala) bakarra aukeratu beharko dute parte hartzaileek, nahi dutena.

Aukeraketa egin ondoren, parte hartzaileek galdera bati zuzen erantzun beharko diote 14 kategorietako bakoitzean, bigarren fasera pasatu ahal izateko. Horretarako, dadoak jaurti eta taulan barrena joango dira, eta erori diren laukia zein taldetakoa den, talde horretan zuzen erantzuteke dituzten kategorien artetik bat aukeratu eta dagokion galderari erantzun beharko diote. Talde bakoitzeko hiru kategorietan erantzun zuzena eman denean, talde horretako laukiak jokotik kanpo geratuko dira eta, ondorioz, ezin izango da lauki horietan berriro erori.

Partida hasieran, jokalariak lau bizitza eta komodin bat izango ditu. Emandako erantzun oker bakoitzak bizitza bat kenduko du eta komodina (% 50eko komodina) erabiltzeak bi erantzun oker ezabatuko ditu. Ezin izango dira pilatu ez bost komodin baino gehiago ez bost bizitza baino gehiago. Bizitzarik gabe gelditzuz gero, jokoa zerotik hasi beharko da.

Hiru lauki berezietako batean eroriz gero, "zortea" sartuko da jokoan. Hortaz, parte hartzaileak komodin bat edo bizitza bat lortu ahalko du ausaz.

"Zitek" laukian eroriz gero, parte hartzaileak komodin eta bizitza bana lortuko ditu.

Hautatutako erantzuna okerra bada (galdera bakoitzak dituen lau aukeren artetik hautatu behar da, eta aukera bakarra da zuzena), jokalariak dadoak jaurtitzen jarraituko du, eta partida eten edota partidara itzuli ahal izango du nahi adina alditan, jokoak iraun bitartean.

### BIGARREN FASEA

Lehenengo faseko 14 kategorietan erantzun zuzen bana emandakoan (ez da beharrezkoa "Zortea" kategorian erortzea), parte hartzailea bigarren fasera igaroko da automatikoki.

Bigarren fasean 50 ekintza egongo dira eta horiek lau atal desberdinetan sartu beharko dira (atal bakoitza maila desberdin bat izango da norberaren enpresaren garapenean). Atal egokian sartutako ekintza bakoitzagatik bi puntu emango dira (gerta daiteke atal baterako baino gehiagotarako balio duten ekintzak egotea).

Bigarren faseko puntuak batuta, finalean parte hartuko duten bost parte hartzaileak aterako dira, hain zuzen ere, puntuaziorik handiena lortu dutenak.

Parte hartzaileen arteko berdinketa izanez gero, berdindu dutenen artean zozketa egingo da finalera zeintzuk pasatuko diren erabakitzeko, bost finalista geratu arte.

Azken sailkapena martxoaren 31an argitaratuko da www.emprendedoreszitek.com webgunean. Finalistei, halaber, mezu elektroniko baten bidez jakinaraziko zaie finalera iritsi direla (eta telefono zenbakirik utzi badute, telefonoz ere abisatuko zaie). Baten batek joaterik ez balu, sailkapenean hurrengo dagoenak beteko luke haren lekua.

**FINALA (FASE PRESENTZIALA)**

Finala presentziala izango da.

Bertan lehenengo fasea bakarrik jokatuko da, eta irabazlea izango da jokoko kategoria guztietan erantzun zuzenak ematen dituen lehenengo pertsona. Jokoak jarraituko du harik eta beste pertsona bik kategoria guztietan erantzun zuzenak eman arte. Orduantxe amaituko da jokoa.

Fase birtualean ez bezala, erantzun oker bat emanez gero, txanda galdu egingo da eta beste parte hartzaile batek hartuko du. Hortaz, bizitzak kenduko dira eta "Zortea" eta "Zitek" laukiak komodinak izango dira.

Dadoak jaurtiko dira parte hartzaileen ordena ezartzeko. Zenbakirik handiena lortzen duenak hasiko du jokoa eta pertsona horren eskuinaldean dagoenak jarraituko du.

Jokalari bakoitzak, gehienez, hiru txanda izango ditu. Hirugarren txandako erantzuna eman ondoren, erantzuna igarrita ere, txanda hurrengoari pasatuko zaio.

**DIPLOMA ETA AUKERA ASKEKO KREDITUAK**

Parte hartu izanaren diploma jasoko dute (eskatu badute) lehiaketan bigarren fasea gainditzen dutenek.

Lehiaketaren iraupena 25 ordukotzat jotzen da, beraz, parte hartzen duten ikasleek hautazko kreditu bat lortzeko eskubidea izango dute.

Ziurtagiriak posta bidez bidaliko dira.

## SARIAK

Finalean parte hartzen duten bost pertsonek sari hauek jasoko dituzte:

Lehenengo sailkatuak: 1.000 euro

Bigarren sailkatuak: 500 euro

Hirugarren sailkatuak: 300 euro

Laugarren eta bosgarren sailkatuek: 150 euro

Lehiaketako bigarren fasea amaitu duten parte hartzaileak (finalistak izan ezik) 150 euroko bi sari emateko zozketan sartuko dira.

Parte hartzaile batek ere ezingo ditu bi sari jaso.

## ZABALKUNDEA

Deialdi hau Bizkaiko Campusaren iragarki taulan eta http://www.emprendedoreszitek.com/ webgunean argitaratuko da.

Deialdi honetako gainerako egintzak eta komunikazioak http://www.emprendedoreszitek.com/ webgunean argitaratuko dira.

## EPAIMAHAIA ETA AZKEN ERABAKIA

Lehiaketako epaimahaiak ebatziko du lehiaketaren online fasean edo finalean sor daitekeen edozein erreklamazio edo zalantza. Zitek Programako hiru bazkideen ordezkari banak osatuko dute epaimahaia.

Irabazleei buruzko erabakia Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak emango du eta www.emprendedoreszitek.com webgunean argitaratuko da.

emman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco    Euskal Herriko Unibertsitatea

## OINARRIEN ONARPENA ETA DATUEN BABESA

Parte hartzaileek ez dituzte auzitan jarriko lehiaketako erantzunak. Erantzunok jokoa hasi aurretik adostuko dira eta parte hartzaile guztiek ontzat emango dituzte lehiaketan parte hartzeko izena ematerakoan. Izan ere, lehiaketan parte hartzeak dokumentu honetan zehaztutako arau guztiak onartzea dakar.

Lehiaketaren batzorde antolatzaileak (Zitek) beretzat gordetzen du parte hartzaileren bati uko egiteko eskubidea, egokitzat joz gero. Batzorde honek beretzat gordetzen du lehiaketan –online fasean zein finalean– irregulartasunik gertatuz gero neurriak hartzeko eskubidea.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Lege Organikoa betez, jakinarazten dizugu zure datuak Zitek-en titulartasunpeko fitxategi batean gordeko direla, eta fitxategi hori lehiaketa behar bezala kudeatzeko bakarrik erabiliko dela. Eskubidea duzu dohainik datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko eta datuak ezeresteko. Horretarako harremanetan jarri behar duzu UPV/EHUko Zitek-ekin (helbidea: Sarriena auzoa z/g- 48930 Leioa; posta elektronikoa: zitek@ehu.eus).